

Informazio

Agerkaria

208

2012ko
martxoa
marzo
2012

Boletín


Informativo

Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuak
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



Lan Erreforma



¿IMAGINAS QUÉ
HARÁS CON EL
60%
QUE TE AHORRAS
CUANDO COMPRAS
NUESTROS
EBOOKS?



Librería Virtual EL DERECHO

La respuesta a todas tus preguntas

Contenidos actualizados con las últimas reformas legales

Contenidos disponibles inmediatamente

Autores de prestigio como los de nuestra colección Tribunal Supremo

Abierto las 24 horas, los 365 días del año



EL DERECHO

www.elderecho.com/publicaciones

Lan-harremanetan etapa berria zabaldu da. Aldaketa handiak egin dira batez ere lan-kontratuen kudeaketan eta negozioazio kolektiboaren bitartez enplegu-baldintzak ezartzean; izan ere, aurrerantzean enpresa izango da onuradun nagusia.

1980an Langileen Estatutua onetsi zenetik egin den lan-erreformarik sakonena da. Horren ondorioz, enpresetan barne malgutasuna handitu da, eta enplegua apurka-apurka suntsitu egingo da. Gainera, enplegu egonkorra sortzeko formularik ez da proposatu, eta egon dagoen enpleguak, indarreko lan-harremanen bidez, kalitatea eta segurtasun juridikoa galtzen ditu, eta baldintza guztiz aldakorrak izango ditu enplegu-emailearen borondate eskusiboaren arabera.

Erreforma honek langilearen eskubideak argi eta garbi murrizten ditu: lan-kontratuak azkentzeko araubide juridikoa malgutzen du, kaleratze kolektiboak eta diziplina-kaleratzeak errazten ditu, izapidetze-soldata kobratzea oro har ezabatzen du, eta bidegabeko kaleratzeetarako kalte-ordainen zenbatekoa murrizten du.

Europar Batasuneko agindu batzuei jaramon egin zaie (ez zen horrelakorik egin behar), baita gaur egungo gobernu babesten duen enpresa-ehunaren eskaerei eta beharrei ere, inolako kontsultarik eta adostasunik gabe, gure parlamentu-sistemak ematen dituen ahalmenak modu legítimoan erabili diren arren. Modu horretan, zailtasun-egoeran dagoen enplegu-emaileari mesede egiten dioten gaiak malgutu dira –batez ere, lan-harremanak kaleratzearen bidez azkentzeko aukera, lan-baldintzen funtsezko aldaketak eta lan-kontratuak alde bakarrez azkentzeko aukera laneko absentismoa dagoenean, justifikatua izan arren-. Orain arte, emaitza ikusita, enpresen gastuak murriztu eta enpresei merkataritza-jardueran aldi baterako lasaitzeko aukera eman beharrean, hartutako neurriek enplegu gehiago suntsituko dute, ekonomia berriz aktibatuzeko mekanismoak ezarri gabe. Hori dela eta, enpresa batzuen ekoizpenak gora egingo du, baina milaka langileren eskubideei kalte egingo zaie, eta azken horiek ogibide bakar eta legítimoak galduko dituzte.

Bestalde, hobariak oso txikiak dira, zerga-salbuespena ezarrita daudenentzat soilik da baliozkoa, ez ekintzaile izateko adorea duten enpresaburu berrientzat, eta enpresa txikiak sortzeko gizarte-segurantzako kuotak oso handiak dira eta hasierako unean behintzat tratamendu berezia izan beharko lukete. Egoera horren aurrean, zaila dirudi pentsatzea enpresa-pizgarriaren bidez ekonomia berriz aktibatuko denik.

Martxoaren 29an, erreformak xede duen gizarteak bere borondatea agertu zuen, iritzi hori ez baita kontuan hartu gure bizimoduak sakon aldatuko dituen Errege Dekretu Legea egiteko. Espero dezagun adostasuna –hitz horrek duen esanahi eder eta adore-emaileenean– izan dadila nagusi beti eta behin betiko gure lan-bizitzan.

Se inaugura una nueva etapa en las relaciones laborales con profundas modificaciones, especialmente, en la vida o gestión de los contratos de trabajo y en el establecimiento de las condiciones de empleo mediante la negociación colectiva que, desde ahora, prima y beneficia, definitivamente, a la empresa.

La reforma laboral más profunda desde la aprobación del Estatuto de los Trabajadores en 1980 ha tenido como resultado un aumento de la flexibilidad interna en las empresas, con unas bases que no podrán paralizar la progresiva destrucción de empleo, que no muestran fórmulas para la creación de empleo estable, y que, por el contrario, convierten el empleo existente, a través de las relaciones laborales en vigor, en empleo de menor calidad y seguridad jurídica sujeto a condiciones absolutamente variables según la voluntad exclusiva del empleador.

Esta reforma que, claramente, menoscaba los derechos de los trabajadores se centra en la flexibilización del régimen jurídico de la extinción del contrato de trabajo, facilitando, notablemente, los despidos colectivos y los despidos disciplinarios eliminando, con carácter general, el cobro de salarios de tramitación y reduciendo para los despidos improcedentes el importe de las indemnizaciones

Atendiendo a dictados de la Unión Europea que quizá nunca se debieron atender, y a las peticiones y necesidades del tejido empresarial que sustenta ideológicamente al Gobierno actual, sin consulta, o consenso alguno, aunque en legítimo uso de las facultades que nuestro sistema parlamentario otorga, se han flexibilizado cuestiones que benefician al empleador en situación de dificultad, sobre todo en lo referido a las posibilidades de extinción de relaciones laborales mediante despido, o en torno a modificaciones sustanciales de las condiciones de trabajo y permitiendo la extinción unilateral de contratos de trabajo en caso de absentismo laboral, incluso justificado, pero el resultado, de momento, indica que, al margen de permitir la reducción de gastos de esas empresas, y quizá un alivio temporal en su vida mercantil, las medidas adoptadas destruirán más empleo, sin establecer mecanismos de reactivación de la economía, lo que no permitirá un aumento de la producción de aquellas empresas a las que se quiere favorecer, mientras se perjudican los derechos de miles de trabajadores avocados a perder sus también únicos y legítimos medios de vida.

Por otro lado, las bonificaciones sociales son mínimas, la exención fiscal sólo es válida para quienes estén establecidos, no para aquellos nuevos empresarios que tengan el valor de emprender, y para la creación de microempresas, las cuotas de la seguridad social siguen siendo cargas demasiado importantes que deberían tener un tratamiento especial en su momento inicial. Con esta situación, parece difícil pensar en una posible reactivación económica mediante el estímulo empresarial.

El jueves 29 de Marzo, la sociedad a la que va dirigida la reforma, manifestó de manera inequívoca su voluntad y una opinión que nunca fue escuchada para crear un Real Decreto Ley que afectará profundamente a nuestras vidas. Esperemos que sea el consenso en su más bello y alentador significado el que impere siempre y definitivamente entorno a nuestra vida laboral.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**

**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Salaketak, kontratuak, dibortzioak, hipotekak, kaleratzeak, istripuak, erreklamazioak, errentamenduak, erretiroak, herentziak...

Horrela defendatzen zara lege arazoak dituzunean?



Galdetu zure abokatuari



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORÍO DE VIZCAYA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**



2012ko martxo
marzo 2012

06

BERRIAK



10

INFORMAZIOA

Lan zuzenbide konparatua

Administrazio elektronikoari buruzko
gogoeten V. jardunaldiak



14

JARDUNALDIAK

3/2012 Errege Lege Dekretua.
Lan merkatuaren erreforma



18

BAZKUNEKO LIBURUTEGIA



20

LEGEGINTZA BERRITASUNAK



22

KULTUR ERANSKINA



ESPAINIAK TURISMO-ONDASUNAK TXANDAKA ERABILTZEA EUROPAKO ARAUDIRA EGOKITU DU

Ministroen Kontseiluak bi Errege Dekretu-lege onetsi ditu. Horien bidez, Espainiako legeria Europako Erkidegoko zuzentaraura egokitu da.

Lehenengo arauak turismo-ondasunak txandaka erabiltzeko kontratueta du eragina, normalean multijabetza deitzen direnak. Egokitzapen horren bidez, kontsumitzaileen babes maila handitu nahi da eta ondasun higiezinak txandaka erabiltzearen inguruko arauketa hobetu da. Zuzentarauak beste ondasun batzuk ere ukitzen ditu, hala nola itsasontziak, karabanak eta itsas bidaiak, okupazio-aldi batean baino tarte handiagoan ostatu moduan erabiltzen direnean.

Esaterako, hamar egunetik hamalau egunera luzatu da gogoeta-aldia, eta horretan bezeroak sinatutako kontra-

tua bertan behera utzi dezake. Horrez gain, debekatuta dago aurretik ordaintzea edo kontura diru-erreserbarik egitea hamalau eguneko aipatu aldia amaitu baino lehen. Iraupen luzeko opor-produktuetan, kontsumitzaileak kontratua bigarren epetik aurrera desegin dezake, eta ez zaio penalizazioz ezarriko. Beste berrikuntza batzuen artean, Errege Dekretu-legearen arabera, turismo-ondasunak txandaka erabiltzeko kontratuaren gutxieneko iraupena urtebetekoa izango da, aurreko legeriako hiru urtekoa izan beharrean.

Gobernuak onetsitako bigarren Errege Dekretu-legeak kapital-sozietateen bat-egiteak eta zatiketak informatzeko eta dokumentatzeko betebeharrak sinplifikatzen du. Europako Erkidegoko Zuzentarau hau indarrean jartzen



denean, betebeharrak hori ukitutako sozietateen web orrietatik egin daitezke. Transposizioaren xedea burokrazia gutxitzea da, izapide horiek, aurretik, errazagoak, bizkorragoak eta erosoagoak izan daitezke.

DEMOKRAZIARAKO EPAILEAK LAN-ERREFORMAGATIK GREBA OROKORRA EGITEKO

JUECES *para la* DEMOCRACIA

Demokraziarako Epailak erakundearen ustez, lan-merkatuaren erreforma lan egiteko eskubideari eta lan-erakundeetako Langileen Estatutua onetsi denetik egindako erasorik handienetakoa da. Erreforma iraingarria, atzeragarria, atzerakoa eta guztiz bidegabekoa da.

Erreforma sektore pribatuan eta publikoan lan-kontratuak funtsean aldatzeko beharrezko osagaiak sartzen ditu, hau da, enpresaburuak ahalmena du kontratu indibidualean itundutako soldata, lanaldia, ordutegia, mugikortasun funtzionala eta geografikoa aldatzeko.

Era berean, hitzarmen kolektiboak ez betetzeko aukerak ezarri ditu, ez bakarrik alokairuari dagokionez, baita hitzarmenean itundutako negoziatio osoari dagokionez ere. Lan-kontratuko alderdien arteko desberdintasuna

sakondu du, sindikatuei, negoziatio kolektiboari eta babes judizialari Konstituzioan eman izan zaien konpentsazio-eginkizuna ahuldu du: lan-arloko epailak ezin izango dute baloratu enpresak hartutako neurriak arrazoi-zkoak edo proportzionatuak diren.

Erreforma enpresaburuaren aldebatetik boterea indartu du, eta langile askok haien sariak eta gainerako lan baldintzak murriztuta ikus ditzakete (lanaldi luzeagoa, enpresaburuak lanaldia modu irregularrean banatzea, eginkizunen balioaniztasuna, etab.) edo langabeen estatistika handitu dezakete.

Arauak berriak, berriro ere, epailak lan-kontratuak arrazoi ekonomiko, tekniko, antolaketari edo ekoizpenari lotutakoak direla eta azkentzearen xedea eta/edo arrazoi baloratzeko ahalmenak mugatzen ditu, eta babes judiziala murriztu egiten du kaleratzearen aurrean. Langileak erreklamazio judi-

zialak egitea ez da sustatuko, eta beraz, konstituzio-zuzenbidearen aurkako kaleratzearen kausalitatea degradatuko da. Espainiako Konstituzioaren 35. artikularen arabera, inor ezin da kalera-tu bidezko arrazoirik gabe, eta horrek Espainiak LANEren 158. hitzarmena berretsita hartutako konpromisoetatik kanpo uzten gaitu.

Langileen oinarrizko eskubideak bermatzen ditugun epailak garen aldetik, gure betebeharrak lan arloko legeak aplikatzen jarraitzea da, Konstituzio printzipioen eta balioen arabera. Horrekin batera, geldiarazi egin behar ditugu enpresaburuari lan-kontratu aldatzeko emandako aukerak direla eta egin daitezkeen balizko abusuei.

Hori guztia dela eta, Demokraziarako Epailak erakundeak elkartzasuna erakutsi nahi die langileei, eta sindikatuak 2012ko martxoaren 29rako deitutako greba orokorra babesten duela adierazten du.

ZUZENBIDEKO LIZENTZIADUNAK GRADUONDOKOAREN ZATI TEORIKOA EGITETIK SALBUETSITA EGONGO DIRA

Horrez gain, Errege Lege Dekretuan Abokatu eta Prokuradore lanbide-etan sartzeko Legearen aldaketa bat gehitu da. Modu horretan, zuzenbideko lizentziadunak ez dira baztertuta geratuko eta salbuetsita egon daitezke edo kredituak baliozkotu ahal izango dituzte 2006an onetsitako jatorriko legeak ezarritako graduondokoa egitean.

Modu horretan, titulua lortzeko masterran lau salbuespen ezartzen dira:

- Lehenengo eta behin, 2006ko urrian Legea onetsi aurretik matrikula egin zuten guztiek ez dute graduondokoa egin behar izango karrera amaitu etab i urteko epean elkargoko kide egiten badira.
- Bigarren, 2006. urtearen ostean zuzenbideko lizentziaturan matrikula egin zutenak graduondokoaren zati teorikoa egitetik salbuetsita egongo dira. Zati praktikoa soilik bete beharko dute.
- Hirugarren atala Legea indarrean jarriaurretik atzerriko titulu bat homologatzea eskatu zuten ikasleei bideratuta dago. Salbuetsita egongo dira, betiere, homologazioa lortzen dutenetik bi urteko epean gehienez elkargoko kide egiten badira.
- Amaitzeko, 2006ko Legearen aurretik lizentziatura lortu zuten ikasleei ere ez zaie titulu profesionalik eskatuko, baina horiek ere bi urteko epean elkargoko kide egin beharko dira.

EZKERRALDEKO ABOKATUEN BAZKARIA

Aurten ere, neguko lehenengo ekaitzen ostean, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko abokatuen ohiko senidetze-bazkaria otsailaren 24an egin zen, egun eguzkitsuan, Portugaleteko "Puente Colgante" hoteleko terrazan, burdinazko transbordadore historikoaren begiradapean.

Ohikoa den moduan, bazkariaren hasieran urdaiazpikoa moztu zen, horrela egiten baitzaie harrera gonbidatuei. Aurten ehun kide baino gehiago elkartu ziren, eta apurka-apurka iritsi ziren, erantzukizun profesionalak utzi zieten. Betiko moduan, tartean egon ziren, Bizkaiko Auzitegietako Prokura-

doreen Elkargo Ospetsuko kideak eta Bizkaiko Notarioen Elkargo Ospetsuko kideak. Azken horiek Barakaldoko barruti judizialean lan egiten dute.

Bazkariaren ostean, arratsaldeko bostetan, dantzaldia hasi zen. Dantza lotuak entzun ziren lehenengo, eta ilundu ahala, erritmo arinagoak eta gimnastikoagoak entzun ziren, gaueko hamarrek arte.

Hala ere, ospakizuna ez zen amaitu. Ekitaldiak Portugaleteko lokaletan izan zuen jarraipena. Egoskorrenak goizaldeko ordu bietan joan ziren, aurpegian irribarrea zutela. Dato-



ren urtean ere otsaileko azken ostiralean elkartzeko hitza eman zuten, aurtengo gogo adiskidetsu eta umoretsuarekin.

BAZKUNeko TXAPELKETETARAKO DEIALDIA

Bizkaiko Abokatuen Bazkuneko Kirol Batzordeak aurten ere 2012KO BAZKUNeko TXAPELKETAK antolatu ditu. Garaikurrak urteko bazkarian emango dira, hau da, 2012ko ekainaren 1ean, Bilboko Kasinoan.

Futbitoa:

Koordinatzailea: JAVIER CORTAZAR;
telefonoa: 94-4050035, 16:30-19:00.

Paddlea:

Koordinatzailea: JAVIER IBAÑEZ
BIZUETA; telefonoa: 94-4216027.

Emakumeen paddlea:

Koordinatzailea: CRISTINA GORGOLAS MEDEL; telefonoa: 94-4272738.

Kontinental (karta-jokoa):

Koordinatzailea: JOSUNE LOPEZ
EZCURDIA; telefonoa: 94-4230513.

Saskibaloia:

Koordinatzailea: ADOLFO RON
HERRERO; telefonoa: 94-4235970.

Musa:

Koordinatzailea: JAVIER BOLADO
ZARRAGA; telefonoa: 94-4356206.

Xakea:

Koordinatzailea: JAVIER IRUARRIZAGA.

Golfa:

Koordinatzailea: RICARDO ZARAUZ.

EUSKO JAURLARITZAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN EGOITZA ELEKTRONIKOA ABIAN JARRI DU



Egoitza elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzu elektronikotara sarbidea errazten du ingurune seguru batetik. Herritarrek konfiantza osoz aritu daitezke horretan. Segurtasuna bermatzeko, web orriak sinadura elektronikoaren sistema erabiltzen du, gailu seguruaren ziurtagirietan oinarritua. Horren bidez, erabiltzaileari aparteko babesa ematen zaio.

Joan den urtarrilaren 30etik, Euskadiko herritarrek administrazioarekin harremanetan jar daiteke Eusko Jaurlaritzak abian jarritako egoitza elektronikoaren bidez. Web orri horretan informazioa eta administrazioarekin dauden izapideetara sarbidea izan daiteke. Web orria martxan jartzea gertaera garrantzitsua da Berrikuntza Publikoaren Planaren barruan, ardatz horretan oinarritzen baitira herritarren esku dauden zerbitzu elektroniko guztiak.

Espazio berri horrek Eusko Jaurlaritzak emandako zerbitzuei buruzko informazioa eman eta horiek nola kontsultatu, eskatu edo izapidetu behar diren esaten du. Horrez gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarira (EHAA) eta Euskadiko administrazio publiko guzietako enplegu-prozesuei buruzko informaziora sartzeko aukera ematen du. Abiatutako espedienteak kontsultatu eta izapidetzeko bidea da, baita dokumentu elektronikoak sinatu eta egiaztatzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoak sortzeak Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko Legea bildutako errekerimenduei erantzuten die. Lege horretan ezartzen da sarbidea izateko puntu elektroniko definitu behar dela, herritarrekin harremanak izan ahal izateko, betiere, babes juridikoari, irisgarritasunari, eskuragarritasunari eta erantzukizunari lotutako berme guztiak beteta.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak lege bat bultzatu du EAEko kargu publikodunen jarrera arautzeko

Araudian kardu publikodunen inpartzialtasuna ezartzeko eta gizartearen konfiantza ez galtzeko neurriak jaso dira, hain zuzen ere, kargudun horiek lan-esparrutik kanpo gauzatutako jarduerak direla-eta haien eginkizunak eta betebeharrak modu inpartzialean gara ditzaketela zalantzan ez jartzeko. Kargu publikodunaren lanpostuaren funtsa osatzen duten printzipio etikoak ere definitzen dira eta gainbegiratzeko mekanismoak arau-hausteen aurreko prozedura zehatzailea ezartzen da.

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Bateriaezintasun Araubidea arautzen dituen Lege-proiektua bultzatu du. Araudian kargu publikodunen inpartzialtasuna ezartzeko eta gizartearen konfiantza ez galtzeko neurriak jaso dira, hain zuzen ere, kargudun horiek lan-esparrutik kanpo gauzatutako jarduerak direla-eta haien eginkizunak eta betebeharrak modu inpartzialean gara ditzaketela zalantzan ez jartzeko. Kargu publikodunaren lanpostuaren funtsa osatzen duten printzipio etikoak ere definitzen dira eta gainbegiratzeko

mekanismoak arau-hausteen aurreko prozedura zehatzailea ezartzen da.

Aurreproiektuan zehaztu da zer diren bateraezintasunak eta zer ez, eta hori aurrerapausoa da Euskal Herriko Autonomia Elkartean herri-ihardunean aritzeagatikako elkartueizinei buruzko 1983ko Legearekin alderatuz gero. Horrez gain, lege-testuan Interes Gatazken Bulegoa sortzea ezarri da, eta erakunde hori langile teknikoek osatuko dute.

Erakunde berri horrek goi-kargudun ohien jarraipena egingo du lanpostu publikoa utzi eta hurrengo bi urteetan, eta Administrazioan kargudun berriak sartzen direnean, horiek aurreko bi urteetan izandako jarduera pribatuak egiaztatuko ditu. Interes Gatazken Bulegoak Parlamentuari, sei hilerik behin, legearen betetze mailari buruzko informazioa emango dio.

Edozein arautegiri dagozkion izapideak abiatu ondoren, testua joan den abenduan Ekonomia eta Gizarte Kontseilura igorri zen (EGK). Kontseilua Gobernuaren eta Parlamentuaren organo aholku-emailea da, eta ekonomia- eta gizarte-interesek Euskal Autonomia Erkidegoko politika ekonomikoan modu eraginkorren parte hartzea du xede.

EGK-k, testua aztertu ondoren, araudiari buruzko irizpena eman zuen eta "oso egokia" zela adierazi zuen, arrazoi hau emanda: "beharrezkoa da administrazioko kargu publikodunen bateraezintasun-araubide berria egitea". Ildo horretatik, organo aholku-emailearen ustez, testuak "erantzunak emango ditu herritarren kezka gero eta handiagoen aurrean, jarduera publikoan gardentasun handiagoa eskatzen baitute". Horrez gain, Kontseiluak gogorarazi duenez, gaur egun indarrean dagoen araua (32/1983 Legea, abenduaren 20koa) eguneratu egin behar da. Kontseiluak goraipatu egiten du aurreproiektua bateraezintasun-araubidea baino harago joatea eta jokabide-kodea arautzea.

Datozen hilabeteetan araudia Parlamentura igorriki oda, behin betiko onesteko.

BORJA MARTÍNEZ-ECHEVARRÍAK IRABAZI DU ABOKATUEN ELEBERRIEN III. SARIA “EL BUFETE” LANAREKIN

• **Abokatutzaren munduari buruz Espainian antolatzen den sari bakarra da. Abokatu lanbideko balioak sustatu eta zabaltzeko sortu zen.**

• **Abokatuena Eleberrien Sarian Abokatuena Mutualitateak, Kontseilu Nagusiak eta Martínez Roca argitaletxeak parte hartzen dute, eta 50.000 euroko saria du.**

Aurtengo epaimahaiak, aho batez, hirugarren edizio honen irabazlea **Borja Martínez-Echevarría**ren EL BUFETE eleberria izatea erabaki du. Epaimahai hurrengo hauek osatu dute: **Lorenzo Silva** (epaimahaiko burua), **Javier Sierra** eta **Marta Rivera de la Cruz** idazleak; **Antonio San José** kazetaria; **José Calabrús Lara** Gobernu Batzordeko kidea, Abokatuena Mutualitateko Prestazioen Batzordeko lehendakaria eta Mutualidad Fundazioko lehendakariordea; **Miquel Samper Rodríguez** Espainiako Abokatuena Kontseilu Nagusiko lehendakariaren albokoa eta Terrasako Abokatuena Elkargoko dekanoa, eta **Carmen Fernández de Blas** Ediciones Martínez Roca Grupo Planeta argitaletxeako zuzendaria.

Egilea oso pozik agertu da epaimahaiaren erabakiaren berri izan duenean. “Lehenengo eleberri honetan, nire asmoa irakurleei abokatuena bulego handiak hurbiltzea izan da, azken hamar urteetan mundu horretan lan egiten baitut”, esan zuen 2012ko edizioko irabazleak.

“Lan honetan egileak abokatuena bufeteen funtzionamenduari buruz eta enpresa handietan eta finantzen munduan dauden azpikeriei buruz duen ezagutza eta analisi-gaitasuna nabarmentzen dugu”, azpimarratu zuen epaimahaiak.

Borja Martínez-Echevarría (Madril, 1975) kazetaritzan egiten du lan betidanik, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean zuzenbideko lizentziatura egin arren. Expansión TVn etapa bat egin eta gero (burtsako korrespondentsala izan zen eta Abogados programa aurkeztu zuen), Expansión egunkarian lan egiten hasi zen, eta abokatuena bulegoiei buruzko informazioa bere gain hartu zuen. Jurídico eranskinaren sorrera-taldea osatu zuen. Hurrengo hauetarako ere lan egin du: El Confi-

dencial, Alba astekaria eta Diario Negocio. Gaur egun Abogados programa zuzendu eta aurkezten du Gestiona Radion eta Pérez + Partners-eko bazkidea da. Azken horretan, abokatuena etxeei aholku estrategikoak ematen dizkie.

Abokatuena Eleberriak Saria Abokatuena Mutualitateak, Kontseilu Nagusiak eta Martínez Roca argitaletxeak sortu zuten, eta eleberri irabazleak 50.000 euro eskuratzen ditu. Edizio honetan 133 eleberri aurkeztu dira: 115 Espainiatik, 10 Latinoamerikatik eta 8 Estatu Batuetatik.

Abokatuena munduari buruz Espainian deitzen den sari bakarra da, eta oinarrien arabera, abokatuena lanbideko balioak sustatzea eta zabaltzea du xede.

Lehenengo edizioan, saria **Carmen Gurruchagak** eskuratu zuen, LA PRUEBA lanarekin; bigarren edizioan **Juan Bolearentzat** izan zen LA MELANCOLIA DE LOS HOMBRES PAJARO lanarekin. Biek arrakasta handia lortu zuten kritikaren eta salmenten aldetik.

EL BUFETE lana apirilaren 10ean jarriko da salgai.

BJABO-KO ABESBATZA, DEUSTU-INGENIARIAK ESTROPADAREN AITA-AMABITXIA

Bilboko CAFE IRUÑA historikoan egin da (hamazortzigarren urtez jarraian) ERRONKA, eta hori dela bide, datorren apirilaren 1ean, “Erramu-domeka, arraun-domekan”, jokoan jarriko da berriro Ingeniariak-Deustu Estropadetakoa Zilarrezko Erretilua.

Marino Montero Café Iruñako harreman publikoaren arduradunak egin zuen aurkezpena, eta ondoren, **José María Gorostiaga PRIDE** (Ingeniariak-Deustu estropada sustatzen duen erakundea) erakundeko lehendakari-fundatzaileak eskerrak eman zizkien ekitaldia babes-ten duten erakunde guztiei. Jarraian, lehiakideen eta **estropadaren aita-amabixien** txanda izan zen. Azken horiei kasuan kasuko zerranda jarri zieten: Ingeniariena urdina Ingeniariena Abesbatzari, **Iñaki Badiolak** ordezkatuta, eta Deustuko gorria Bizkaiko Aboka-

tuena Elkargoko Abesbatzaren lehendakariari, **Ana Bermejori**. Batari eta besteari Ingeniariak-Deustu estropadako ereserkiaren partitura bat eman zieten, eta bieki erronka egin zitzaizen ereserkiari letra ipintzeko.

Asier Alonsok, Ingeniariena tripulazioaren izenean, aurreko edizioan gal-tzaileak izan baitziren, Deusturi jotako erronka irakurri zuen. Eta **Borja Viaderok**, Deusturen izenean, erronka onartzeko erantzuna irakurri zuen. Jarraian, Ingeniariena ordezkariek **erronkaren arrauna** lurrera jaurti zuen eta Deustuko ordezkariek jaso zuen, Estropadako Zilarrezko Erretilua jokoan jartzen dutela adierazteko.

Ekitaldia amaitzeko, bi abesbatzetako ordezkariek hitz batzuk esan zituzten eta Ingeniariak-Deustu estropadako ereserkiari letra jartzeko erronka onar-

tu zuten. Estropada amaitzen den lekuan (Uribitarteko kaian) batera abesteko asmoa zutela iragarri zuten, 2012ko apirilaren 1ean, “Erramu-domeka, arraun-domekan”. Horretarako, bi abesbatzetako kideek osatutako talde mistoa eratuko dute.



LAN ZUZENBIDE KONPARATUA

KALERATZEAGATIK KALTE-ORDAINIK DAGO?

ESPAINIA: Bai, kalte-ordaina dago, bidezko kaleratzeetan zein bidegabekoetan. Ez dago kalte-ordainik diziplinako kaleratzeetan.

ALEMANIA: Sei hil etenik gabe lan egin bada bakarrik. Diziplinako kaleratzeetan ez dago kalte-ordainik.

FRANTZIA: Urtebete etenik gabe lan egin bada bakarrik. Kaleratzea diziplinako bada, ez dago kalte-ordainik.

ITALIA: Bai, langileak kalte-ordaina jasotzen du beti, kaleratze mota gorabehera.

AUSTRIA: Gutxienez 3 urte lan egin bada bakarrik. Diziplinako kaleratzeetan ez dago kalte-ordainik. Kalte-ordaina gehikorra da: zenbat eta urte gehiago lan egin, kalte-ordaina handiagoa.

ERRESUMA BATUA: Arrazoi ekonomikoen ondoriozko kaleratzeetan bakarrik, eta langileak enpresan gutxienez bi urte egin baditu.

SUEDIA: Legez ez dago kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainik finkatuta.

EEBB: Legez ez dago kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainik finkatuta.

ZEIN DA KALTE-ORDAINAREN ZENBATEKOA?

ESPAINIA: Bidegabeko kaleratzeetan, kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko 33 eguneko da, gehienez 24 hileko. Hala ere, lan-erreforma indarrean jarri aurretik kontratu mugagabea zutenek 45 egun kobratuko dituzte lan egindako urte bakoitzeko aurretzako aldi horregatik, gehienez ere 42 hileko. Bidezko kaleratzeetan, kalte-ordaina urte bakoitzeko 20 eguneko da, gehienez 12 hileko. Frogatu beharrenean karga kaleratzea bidezkoa den edo ez erabakitzea langileari dagokio: enpresaburuak kaleratzea bidezkoa den egiaztatu beharrenean, langileak egiaztatu behar du bidegabea dela. Aldi baterako kontratuetan, kalte-ordaina 10 eguneko da 2012an eta 2013an sinatu direnetarako, eta 12 eguneko da 2014ko urtarriaren 1etik aurrera sinatzen direnetarako.

ALEMANIA: Kaleratzea arrazoi ekonomikoenatik: kalte-ordaina hil erdikoa da lan egindako urte bakoitzeko.

FRANTZIA: Bi kasu: a. Hamar urtetik behera enpresan: kalte-ordaina lan egindako urte bakoitzeko hileko alokairuaren %20 da. b. Langileak hamar urte baino gehiago enpresan: kalte-ordaina hileko alokairuaren %20 da 1. urtetik 10.era. Aurreko kalkuluarri %0,13 gehitu behar zaioa parteko urte bakoitzeko.

ITALIA: Zenbatekoa kalkulatzeko formula bat aplikatzen dute: urte bateko alokairua 13,5ekin zatitzen da, eta emaitzari %1,5 batzen zaio lan egindako urte bakoitzeko. Gainera, konpentsazio bat gehitzen zaio inflazioarengatik –aurreko urteko itxierako KPIren %75-.

AUSTRIA: 2003ko urtarriaren 1aren ostean sinatutako kontratuetarako, 'austriar eredia' dago. Enpresak langile bakoitzaren alokairu gordinaren %1,53 funts batean jartzen du. Kaleratze bat dagoenean, funts horretan gutxienez 36 ekarpen –enpresa baten edo gehiagoren aldetik- eginda dituen edozein langilek hauta dezake edo egokitzen zaion kaleratzearen ondoriozko kalte-ordaina jasotzea –aurrezki-funts

horren kargura- edo ez. Langileak kobratzeari uko egiten badio edo betekizunak betetzen ez baditu, ez da kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainik egongo. Kontuko saldoa transferitu egiten da eta langilea kontratatuko duen hurrengo enpresak kasuan kasuko ekarpenak egin beharko ditu. Laneko bizitzan erabiltzen ez badu, langileak funts hori erretiroa hartzen duen unean kobratuko du.

ERRESUMA BATUA: Kalte-ordaina adinaren arabera kalkulatzen da. - 22 urtetik behera: 0,5 asteko alokairua lan egindako urte bakoitzeko. - 22 eta 40 urte bitartean: alokairuaren aste 1 lan egindako urte bakoitzeko. - 41 urtetik gora: 1,5 asteko alokairua lan egindako urte bakoitzeko.

SUEDIA: Oro har, kasuan kasuko hitzarmen kolektiboetan adosten da.

EEBB: Sindikatu-ordezkariek dituzten enpresetan, negoziazio kolektiboak kalte-ordainaren zenbatekoa onesten du.

ALDI BATERAKO ZENBAT KONTRATU KATEATU DAITEZKE?

ESPAINIA: Ez dago mugarik kontratuen kopuruan, iraupenean baino: bi urte gehienez. Dena den, muga hori 2012an etenda dago.

ALEMANIA: Lau kontratu, gehienez 24 hilabete. Enpresa sortu berrientzat, gehienez 48 hilabete. Arrazoi objektiboak badago, mugarik gabe berritu daiteke.

FRANTZIA: Bi kontratu, gehienez 24 hilabete.

ITALIA: Bi kontratu, eta lehenengoak hiru urtetik beherakoa izan behar du. Izan ere, gehiengo iraupena 36 hilekoa da. Horrek ez du eraginik turismo- eta nekazaritza-sektorean, hor ez baitago mugarik ez kontratuen aldetik ez iraupenaren aldetik. Ez dago mugarik ez kontratu kopuruari ez iraupenari dagokionez. Kateko kontratuen legezotasunari buruz auzitegiek erabakiko dute. Ez du eraginik turismo- eta nekazaritza-sektorean.

AUSTRIA: Printzipioz, aldi baterako kontratuak 2 edo 3 aldiz soilik berritu daitezke. Jarraian, aldi baterako kontratua kontratu mugagabe bihurtzen da. Ez da baimentzen (salbuespen batzuk kenduta) aldi baterako kontratuak modu mugagabean berritzea. Iraupena ez dago hila-beteen arabera kalkulatuta, kontratu kopuruaren arabera da. Langileak kobratzeari uko egiten badio edo betekizunak betetzen ez baditu, ez da kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainik egongo. Kontuko saldoa transferitu egiten da eta langilea kontratatzen duen hurrengo enpresak kasuan kasuko ekarpenak egin beharko ditu. Laneko bizitzan erabiltzen ez badu, langileak funts hori erretiroa hartzen duen unean kobratuko du osorik.

ERRESUMA BATUA: Ez dago mugarik kontratu kopuruari dagokionez, baina gehiengo iraupena ondoz ondoko 24 hil dira. Horrez gain, bost urteko aldiaren langilea 2 urtez soilik egon daiteke modu horretan kontratatuta. Epe hori luzatzen bada, kontratua mugagabe bihurtzen da.

SUEDIA: Ez dago mugarik kontratu kopuruan eta iraupenean. Or ohar, lan-kontratuaren baldintzak bi alderdiek erabakitzen dituzte.

EEBB: Ez dago mugarik kontratu-kopuruan eta iraupenean. Oro har, lan-kontratuaren baldin-

tzak bi alderdiek erabakitzen dituzte.

ZEIN DA PROBALDIAREN GEHIENGO IRAUPENA?

ESPAINIA: Urtebete, hobariak dituen kontratu mugagabearen kasuan, 50 langiletik behera dituzten ETEen kasuan eta 30 urtetik beherako gaztea kontratatzen badute. Gainerako kontratuetan, gehiengo sei hilabete da.

ALEMANIA: Sei hilabete

FRANTZIA: Zortzi hilabete

ITALIA: Sei hilabete

AUSTRIA: hilabete bat

ERRESUMA BATUA: 12 hilabete

SUEDIA: Sei hilabete

EEBB: Ez dago mugarik. Sindikatu batek ordezkatzen dituen langileen kasuan, akordio bat egoten da enpresarekin: 30 eta 90 egun bitartean.

KONTRATU MOTAK

ESPAINIA: Existen decenas de modelos de contratos de lan-kontratuen mota asko eta asko daude: mugagabeak, aldi baterakoak, administratiboak eta gizarte-talde batzuentzat. Ohikoenak: obra eta zerbitzuko kontratua, eta lan-kontratu mugagabea. Lege berriarekin kontratu mugagabea egongo da ekintzaileei laguntzeko. Hori dela bide, enpresaburuak lehenengo langile moduan 30 urtetik beherako gazte bat kontratatzen badu, 3.000 euroko kenkari fiskala izango du. Horrez gain, langilea langabezian bazegoen, urtebetez langabeziasorospeneren %25ekin bateragarria izango da.

Enpresak ere langileak langabeziasorospentetik jasotzeko zuen kopuruaren %50eko kenkaria izan dezake urtebetez.

ALEMANIA: 1. Iraunkorrak: kontratu mugagabea 2. Lanaldi partziala:

A. Mini-jobs:

-Ordainsari txikia, 400 euroraino hilean

-Gehienez 15h astean

-Langileari ez zaio ezer atxikitzen soldatetik.

-Enpresaburuak soldataren %30 ordaintzen du: %2 Ogasunak eta %15 pentsioen sistemak,

-Langileak ez du eskubiderik gaixotasun-aseguruen prestaziorik jasotzeko, beste kasu batzuegatik lortzen da.

-Alemanian mini-joben 7 milioi kontratu inguru daude: horrek ez du esan nahi 7 milioi langile daudenik, zenbait mini-job izaten dira eta.

B. Midi-jobs:

-Alokairua: 401 eta 800 euro bitartean hilean

-Langileak gizarte-segurantzako eskubideak lortzen ditu

-Langileari soldataren atal bat atxikitzen zaio zergengatik

3. Kontratu murriztua edo kontratu alemana

-Krisialdian, lanaldia eta alokairua murrizten dira

-Alokairu-murrizketaren zati batekin Alemaniako gizarte-segurantza finantzatzen da

FRANTZIA: Kontratuen oinarriko bost mota daude.

1. Iraupen mugatuko kontratua: erabiliena da

eta kontratuen %90 inguru biltzen ditu.

2. Kontratu mugagabea

3. Aldi baterako kontratua enplegu-agentzia baten bidez

4. Lanaldi erdiko kontratua

5. Etenkako kontratua, sasoiko enpleguetarako pentsatua, turismo- eta nekazaritza-sektoreetan.

Italia: 1. Kontratu mugagabea: ohikoena

2. Aldi baterako kontratua: gero eta ohikoagoa

3. Lanaldi partzialeko kontratua

4. Kontratazioa suspertzeko eta kaleratzea saihesteko kontratua. 2003ko lan-erreforman 12 kontratu mota inguru gehitu ziren.

5. Elkartasun-kontratua: xedea enpleguari eustea eta kaleratzea saihestea da. Enpresa bat krisian dagoenean, %60ko lanaldi- eta soldata-murrizketa aplika daiteke, gehienez 24 hilabetez.

6. Kontratu elkarbanatua. Lan-lotura berezia da; hori dela bide, bi langilek lanpostu bakarra lanaldi osoan betetzea adosten dute. Ez da lanaldi partzialekoa eta ez ditu bi lan-lotura desberdin eragiten.

7. Integrazio-kontratua: 18 hilabeteko kontratua da, gazteei eta iraupen luzeko langabeei bideratua, administrazio publikoan sartzeari begira.

AUSTRIA: Hilabete bat

ERRESUMA BATUA: 12 hilabete

SUEDIA : Sei hilabete

EEBB: Mugarik gabe. Sindikatu batek ordezkatzen dituen langileek enpresarekin akordioa izan ohi dute: 30 eta 90 egun bitartean.

GAZTEAK LAN MUNDUAN SARTZEKO KONTRATUAK DAUDE?

ESPAINIA: Bai, prestakuntza eta ikaskuntza kontratua: printzipioz, 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzat. Lehen urtean, laneko denbora eragingarria ez da izango hitzarmean ezarritako gehiengo lanaldiaren %75 baino handiagoa, eta gainerako denboran prestakuntzarekin bateragarria izango da. Bigarren eta hirugarren urtean, lan eragingarria ez da izango lanaldiaren %85etik gorakoa. Alokairua proportzio berean murrizten da, baina inoiz ez da izango lanbide arteko Gutxieneko Soldata baino txikiagoa. Iraupena, gehienez hiru urte, gutxienez urte bat. Praktikal-diko kontratua: unibertsitateko tituludunentzat, ikasketak amaitu eta gehienez beste bost urte. Lehen urtean, soldata lanpostu horretako soldataren %60 izan daiteke, eta bigarrenean %75etik gorakoa. Iraupena: bi urte gehienez.

ALEMANIA: Sí: 1. Contrato de aprendiz o de Alemania: Bai: 1. Ikastunaren edo lanbide-heziketako kontratua: gazteak, eskolako prestakuntza amaitzen duenean (16-19 urte), gaztea enpresa batean sartzen da ikastun moduan. Han 24 eta 42 hilabete bitartean egiten ditu. Denbora horretan lan egiten du, baina baita ikasi ere: Lanbide Heziketako ikastetxe batera joaten da. Enpresak gizarite-segurantz, langabezia eta erretiroa ordaintzen dituzte. Soldata aldatu egiten da sektorearen eta estatuen arabera.

2. Praktikak enpresetan unibertsitateko ikasketak egiten diren bitartean: ordua 10 eta 15 euro bitartean ordaintzen da.

FRANTZIA: Bai. Laneratze-kontratu bakarra du, gutxienez sei hilabete irauten duena. Gazteek ez dute galtzen ez kalte-irudaina jasotzeko eskubidea ez langabezia-eskubidea. Jasotzen den soldata lanbide arteko gutxieneko soldata da.

ITALIA: Bai, lau mota. 1. Cococó kontratua: Obra-kontratua da, Lankidetzako Koordinatu eta

Etengabekoa izenekoa, gazteen eskubideak defendatzeko pentsatua. Proiektu bat edo lan-programa bat bildu behar du. Oso polemikoa da. Sindikatuen esanetan, behin-behinekotasuna eta eskubide-gabezia areagotzen ditu.

2. Ikaskuntza-kontratua: 15 eta 24 bitarteko gazteei bideratuta dago. Gutxienez 18 hileko eta gehienez lau urteko iraupena du. Gehienez egunean zortzi ordu eta astean berrogei ordu ditu.

3. Prestakuntza-kontratua: 16 eta 32 urte bitarteko gazteei bideratuta dago, tituludunak edo diplomadunak izan eta esperientziarik ez badute. Gehienez 24 hilerako izaten da.

4. Integrazio-kontratua: 18 hileko kontratua da, gazteei eta iraupen luzeko langabeei zuzendua, administrazioan sartze aldera.

AUSTRIA: Bai, 16 eta 19 urte bitartean ikastun-kontratua dago, eta aldi baterako da.

ERRESUMA BATUA: Ez dago gazteei zuzendutako kontratu zehatzik.

SUEDIA: Gazteak lan-munduan sartzeko programa, 20 eta 24 urte bitarteko gazteei lan-esperientzia emateko. Alokairua estatuak ordaintzen du, ez enpresak. Gainera, Suediako estatuak hilean enpresari 1.000 koroa suediar ematen dizkio. 20 urtetik beherako gazteei lan publikoa emateko udal planak daude. Enpresa pribatuak parte har dezakete.

EEBB: Enplegu-programa federalak daude de-dikazio partzialarekin lan egin nahi duten ikasleentzat, eta beken programak unibertsitateko ikasleentzat.

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN ZERK DU LEHENTASUNA?

ESPAINIA: Pueden convivir varios convenios: el territorial (nZenbait hitzarmen aldi berean egin daitezke: lurraldekoa (naziokoa, autonomikoa edo probintziakoa), sektorekoa eta enpresakoa, baina 2011tik aurrera enpresa-hitzarmenak lehentasuna du besteen aurrean. Hitzarmen kolektiboak lege-indarra du, eta Espainian, langileen %80 hitzarmen batek babesten ditu. Edonola ere, 2012ko lan-erreformak enpresari erraztasunak ematen dizkio soldata-erregimena ez aplikatzeko, hau da, "lan-baldintzak funtsean aldatzea arrazoi ekonomikoak, teknikoak edo antolaketari edo ekoizpenari lotutakoak daudenean"; alda daitezkeen alderdien artean lanaldia eta, lehenengoz, "soldata" daude, hau da, langileen soldata jaisi daitezke hitzarmena gorabehera.

